

ALKATEAREN EBAZPENA

Anoetan, bi mila hogeita bateko martxoaren hamabian, Pedro M^a Estanga Lasa alkate-lehendakariak zera dio:

Anoetako udal honek zerbitzu hau kontratatu nahi du: Udarako Udaleku irekiaren antolakuntza.

Kontratuaren balioaren kalkulua :25.000 eurokoa da (BEZ-a barne).

Kontratu Beharra : Udan Anoetako udalerriko haur eta nerabeentzako “Udaleku irekiak” zerbitzu ematea.

Alkatetza da kontratazioaren organoa.

2021ko Aurrekontu Orokorrean hurrengo partidan kreditua dagoela ikusita:

1.0000.227.337.20.04

Esleitzeko prozedura irekia sinplifikatua izango da (Kontratuen Legearen 159 artikulua)

Ikusita kontratazio espedientea:

- Kontratuaren justifikazio memoria.
- Bitarteko ezari buruzko txostena.
- Baldintza teknikoen agiria
- Baldintza administratibo berezien agiria.
- Idazkari-kontuhartzailaren txostena.

Horren aurrean eta legeak adierazten dizkion eskuduntzen arabera,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Udan Anoetako udalerriko haur eta nerabeentzako “Udaleku irekiak” zerbitzua prestatzeko proiektua onartzea.

Bigarrena.- Aipaturiko zerbitzua kontratatzeko espedientea irekitzea.

Hirugarrena.- Kontratazio era Prozedura ireki sinplifikatua zehaztea.

Laugarrena.- Goian aipatutako kontratazio espedientea eta gastua onartzea .

Bosgarrena.- Lizitazioa deitzea, Udal honen Kontratatzailearen Profilean eta Euskadiko Kontratatzailearen Plataforman hamabost (15) egun naturaleko epean proposamenak aurkez daitezen.

Alkatea



